



Etzitik aurrera zabalik izango da Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu Txikia

Urte borobila beteko du aurten Laskorain ikastolak bultzatutako Merkatu Txikiak; izan ere, hogeitun igaro dira lehenengoz martxan jarri zenetik **6**

Hirukide ikastetxeko eta Kirikiño aisialdi taldeko kideen eskutik bi mila kiloko laguntza

Abegi eta Caritas elkarteek 2.000 kilo elikagai inguru jaso dituzte, iragan asteburuan Hirukide ikastetxeko eta Kirikiñoko kideek supermerkatuetan bilduta **6**



tolosaldeko ataria

3. urtea. 416. zenbakia. • www.ataria.info • OSTEGUNA, 2015-12-24



Ana Sanz, Alberto Letamendi, Arantxa Orbegozo 'Txiki' eta Mireia Gonzalezen lanak ikusgai daude Aranburun. m. u.

Kulturtruk, artea eskura zentimorik gastatu gabe

Proiektua Tolosako lau artistek abiatuta sortu da eta helburua artistaren eta artelanaren jabe bihurtzen denaren artean trukea sustatzea da **2**

'Gabon Autogestionatu'-en proposamen zabala, Ibarren

Gazte Asanbladak urtarrilaren 3a bitarteko egitaraua aurkeztu du; «kontsumismoan oinarritu gabeko Gabonak» bezala plazaratu dute programa **3**



Gaztetxe izateko okupatuz

Atzo goizean Tolosako Gazte Asanbladak Izaskungo aldaparen hasieran dagoen eraikina okupatu zuen. Helburua, gaztetxe bihurtzea: «Herriko bizia, gaztetxe berria». Gazte Asanblada duela urtebete martxan jarri zenetik honakoa bigarren okupazioa da, uztailean egin baitzuen lehen saiakera. Atzo okupatutako fabrika Pinturas y Lacas del Norte S.A. izandakoa da. **5**



KRISEILUEK ERABAKITZEKO ESKUBIDEA ARGITUKO DUTE ESKUALDEAN

Tolosaldeko zortzi herrietan, abenduaren 26an eta 31n aireratuko dira kriseiluak, Gure Esku Dago dinamikak bultzatuta **2**

IV. OGI BERRI-MIGEL SOROA TXAPELKETA ABIATUKO DA LARUNBATEAN

Pilotazaleek asteburu bete dute; Migel Soroaz gain, Antton Pebet eta Euskal Herriko Kluben Arteko Nazio Mailako Pilota Txapelketa **5**

'BERROBI BIZIA' PROIEKTUAREN HELBURUA HERRIA BIZIBERRITZEA DA

Azken asteotan kultur eta giza ekimen ezberdinak jarri dituzte martxan Berrobin, sukaldaritza tailerra kasu eta baratza izateko aukera ere zabalik da **3**

ataria 2016 bertso jaialdia

Andoni Egaña,
Beñat Gaztelumendi,
Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio,
Aitor Mendiluze, Unai Mendizabal
Gai jartzailea: Amaia Agirre

Atarikideentzat 8€
Atarikide:
Egin zure erreserba abenduaren
28tik urtarrilaren 8ra.
Gehienez 2 sarrera bakoitzak.
Deitu edo idatzi:
943 65 56 95
atarikide@ataria.info

Urtarrilak 23 • LARUNBATA • 18:00etan
Tolosako Leidor antzokian

Kulturtruk, artea eskuratu eta trukea sustatu

Kulturtruk ekimena jarri dute martxan hainbat artistek; ekimen honen bitartez trukea proposatzen da artistaren eta artelana eskuratzen duen pertsonaren artean. Ekimena martxan jartzeko artelanekin erakusketa bat zabaldu dute Aranburu Jauregian

MAIER UGARTEMENDIA

Kulturtruk izeneko dinamika bat jarri da martxan Tolosan. Baina, zer da Kulturtruk? Artistaren eta artelana eskuratzen duen pertsonaren artean trukea egitea da, baina dirurik erabili gabeko trukea.


Proiektuari hasiera pasa den astean eman zioten, eta Ana Sanzek, Alberto Letamendik, Arantxa Orbe-gozo Txixi-k eta Miren Gonzalez Goikoetxeak egin zuten ekimenaren aurkezpena. Hala ere, urtarrilaren 28ra bitarte egongo da zabalik erakusketa, eta bertan trukeak egiteko aukera izango da, baina ez da hor amaituko egitasmoa; www.kulturtruk.com helbidean jarraitu ahal izango da trukeak egiten.

Miren Gonzalez Goikoetxeak azaldu zituen egitasmoaren nondik norakoak. Kulturtruk «trukeak egiteko toki bat» dela azaldu zuen, eta bertan «artelanak eta artelan zerbitzuak beste objektu edo zerbitzu batzuegatik» aldatzen direla. Hau da, norbaiti artista horien lana interesatzen bazaio truke bat proposatzea da helburua.


Urtarrilaren 28ra bitarte erakusketan lau artista horien lanak ikusgai egongo dira, eta norberak bere esparruan aporta dezakeena eskainiko du. Alberto Letamendiren margoak eta eskulturak, Arantxa Orbe-gozok Txixik erretratuak enkarguz egiteko aukera eskaintzen du, Ura Iturralde argazkiak eta argazkilari zerbitzuak, Miren Gonzalezek bere margoak. Horrez gain, beste hamabi artista gonbidaturen lanak ere ikusi ahal izango dira: Iñigo Altolagirre, Iñigo Aristegi, Judas Arrieta, Idoia Elozegi, Nerea Lopez Lanceta, Aran-



Proiektua sortu duten Tolosako lau artistez gain, hamabi artista gehiago gonbidatu dituzte ekimenean parte hartzera. M. U.



Kulturtruk ekimenaren baitan trukea daitezkeen artelan batzuk ikusgai daude Aranburu Jauregian urtarrilaren 28ra arte. M. U.



tza Munita, Dolo Navas, Ainara Oscoz, Iñigo Royo, Ramon Ruiz Cabestany, Oihana Ugarte, Iker Valle eta Zumeta.

Interesa dutenek, nola egin trukea? Erakusketaren sarreran dauden panel batzuetan azaltzen dute nola egin daitekeen, baina artelan bakoitzak zerbaki bat izango du alboan. Bestalde, formulario bat ere egongo da trukea egin nahi duenak bere datuekin betetzeko eta zenba-

kia gehitzeko, horiek kutxa batean sartuko dira. Gonzalezek azaldu duenez artistak trukean «interesa» badu, eurak jarriko dira harremantant formularioa bete duen pertsonarekin. Hortik aurrera, berriz, trukean parte hartuko duten pertsonen arte-

an adostuko dute zer eta nola egin: «Baldintzak zehaztuko dira eta dokumentu baten bidez itxiko da trukea».

Artea jendeari gerturatzeko

Aurkezpenean azaldu zuten, «guztiek» egin izan dituzte lehenago ere trukeak, eta orain lehen aldiz guztiek bat eginda ekimen osoago bat martxan jartzea Ana Sanzen ideia izan zen. Espazio honen helburua, trukeak egiteko lana «erraztea» izan da Sanzen esanetan: «Jende askori kosta egiten zaio eskaintza bat egitea», baina euren esanetan «denok daukagu zerbait eskaintzeko». Eta ideiarik ez duenarentzat baliagarriak izan daitezke Aranburu Jauregiaren erakusketa sarreran jarri diren zenbait adibide: urte guztirako frutak eta barazkiak, olioak, igeltseritza, instalazio elektrikoak, garraioak, klase partikularrak, altzariak, dekorazio proiektuak... Hala ere, norberak bere esparrutik gauza materialak edo zerbitzuak eskaini ditzake, aukera zabal da.

Bide batez, dirua medio ez dagoen «erlazio mota bat» bultzatzea, ideia «polita» izan zitekeela pentsatu zuten eta harreman «bide berriak» sortzeko aukera izan zitekeela.

Gainera, guztiek uste dute artelana «ikusleari gerturatzeko» ekimen aproposa izan daitekeela honakoa, eta horrela «askoz ere jende gehiagorengana» heltzeko aukera dutela. Eta hori bideratzeko, lekuak ere horretan lagun dezakeela uste dute: «Arte saltzeko mugitzen den lekutik ateratzen du». Jende «asko» galerietara ez dela gerturatzen uste dute, eta «artelan bat izateko» beste jende batengana heltzeko aukera ematen duela.

Artistak gehituz

Aipatu bezala, kulturtruk.com web orria martxan dago jada, eta bertan jarraituko dute egitasmoarekin. Bertan ez dute lau artistek bakarrik parte hartuko; gonbidatutako artistei ere lekua emango zaie eta datozen bi urteetan «deialdia» egingo dute interesa izan dezaketenen artean bertan parte hartzeko eskaera egiteko, eta «kanpoko» epaimahai batek erabakiko luke zeintzuk parte hartuko luketen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**Iragarki
laburrak**

LAN ESKAINTZAK

Ile apaindegia: Tolosako ile apaindegi baterako ile apaintzaile euskalduna behar da. Interesa dutenek, oficialpeluqueriatolosa@gmail.com helbide elektronikora bidali dezatela emaila.

Markatu solidariooko zerbaki sariduna

IBARRA. Ibarrik Misio Taldeak aurreko astean zabalik izan zuen markatu solidarioa, eta bertan produktu ezberdinez osatutako saskia zozkatatu zen. Zerbaki sariduna 951 zerbakia izan zen, eta taldetik jakinarazi dutenez zerbaki sariduna duenak 676 62 39 90 (Xabier) telefonora deitu behar du.

Eskiatzera joateko aukera Urepelerekin

BERASTEGI. Urepele Biltokitik beste urte batez Pirinioetara eskiatzera joateko irteera antolatu dute. Urtarrilaren 16 eta 17an izango da, larunbat goizean irten eta igande arratsaldean itzuli. Bertara joan nahi dutenek, ahalik eta azkarren, kirol taldeko norbaitekin harremanetan jarri beharko dute.

Baratza izateko aukera zabalik



Sukaldaritza goxoa tailerrak arrakasta handia izan zuen herritarren artean. ATARIA

'Berrobi bizia' ekimenak hainbat proiektu jarri ditu martxan herrian

MAIER UGARTEMENDIA BERROBI

Berrobi biziberritzeko lanetan ari dira, eta azken asteetan *Berrobi bizia* izeneko ekimenaren barruan hainbat tailer eta proposamen luzatu dizkiete herritarrei. Lehenik Bihotz biriketako bizkortze teknikak tailerra izan zen; eta pasa den astean Sukaldaritza goxoa tailerra. Bigarrenak, arrakasta handia izan zuen. Hogeita hamar pertsona inguru bildu ziren Bide-Ona elkartearen Felix Belauntzaren sukaldariaren gidaritzapean, sukaldaritzaz gehiago ikasteko asmoz. Gainera, bertan garaian garaiko produktuei garrantzia eman nahi izan zien, eta bertan ekoiztutako barazkien kontsumoa bultzatzea ere helburu zuen tailerrak. Udaberri-uda sasoiaren izango da hurrengo sukaldaritza tailerra, garaiko produktuekin.

Ekimenaren beraren barruan, baratza bat izatea gustatuko litzaieken

herritarrei deialdi bat zuzendu diete. Baratza nahi izan, baina lur sailik ez duten herritarrei zenbait eremu publiko eskainiko dizkiete erabilera iraunkor bat emateko. Ez da beharrezkoa izango baratzagintzan aditua izatea, baratza lantzeko «interesa» besterik ez dute eskatzen, eta beharrezkoa den «gainontzeko gutzia zure eskura jarriko dugu, doan». Halaber, baratzaren lanketarako beharrezkoa den «prestakuntza gutzia» ere aurreikusten du ekimenak.

Interesa duten herritar guztiak www.berrobibizia.eus web orrian edo 943 68 32 94 telefonoan eman dezakete izena abenduaren 30a baino lehen.

Gabonetako aisialdi plana

Haur eta gazteenentzat atsedean egunak izaten diren egunetarako, berriz, aisialdi plana antolatu du *Berrobi biziak*. 09:00etatik 12:00etara izango dira ekimenak, Berrobiko plazan, eta bi adin talde ezberdinetan banatuta egingo dituzte tailer edo ekimen ezberdinak. Egun horietarako prestatutako egitaraua ataria.info-n irakur daiteke.

Irudia Belauntza



Jakoba Errekondoren aholkuak

Kultur astea ospatu dute Belauntzan, eta Jakoba Errekondoren bisita jaso zuten. Errekondok *Bizi Baratzea* liburua aurkeztu zuen, liburua- ren nondik norakoak azalduz. Herritar ugari bertaratu zen eta elkar- truke polita sortu zen herritarren eta Errekondoren artean. M. U.

Gabonen beste eredu bat bultzatu nahian

'Gabon Autogestionatuak' antolatu ditu Gazte Asanbladak

MAIER UGARTEMENDIA IBARRA

Ibarrako Gazte Asanbladak datozen egunetarako *Gabon Autogestionatuak* antolatu ditu. Gaur egungo Gabonen eredutik alderatu nahi dute, batez ere «kontsumismoan» oinarritzen dela uste baitute, Manex Gurrutxaga gazte asanbladako kidearen esanetan. Horregatik, autogestionatutako egitarau bat osatu nahi izan dute: «Guk, guretzako eta gure kabuz».

Urteroko ohitura dute Gabonetako jai egunak aprobetxatuz, egitarau bat antolatzeko, «Ibarrako gazte- rriari eta herriari begira».

Horrelako egitarau bat prestatzeko lana suposatzen badu ere, lan horiei «gogotsu» heltzen diotela dio Gurrutxagak.

«Herriatik herriarentzat»

Truke azokarekin ekin zioten egitarauari pasa den asteburuan, eta horrekin helburu zuten «gauzak erosi eta etxean pilatuta eduki beharrean», trukatu eta «bata bestea elikatzea» zuten helburu.

Hurrengo hitzordua, bertso taile- rrean izango dute. Azaroan antolatutako kultur astean izan zuten lehen tailerra eta orain errepikatzea erabaki dute, «bertso mundua» gustuko dutelako eta Gazte Asanbladako kide bertsolari batek laguntzen dielako bertsoan barneratzen.

Lizartzarekin lotura zuzena duen Ibai Agirrebarrena ere izango da Ibar- ran, Euskal Herrian egiten ari den biraren barruan *Jauzia* proiektua aurkeztu: «Estatu frantsesean euskal gatazkarekin bizitzan zehar zeri- kusirik izan ez duten pertsonak ger-



Herritar guztiak Gabon Autogestionatuaren parte hartzerara gonbidatu dituzte. ATARIA

taera historiko batetik aurrera nola inplikatu den kontatzen du testigantza bidez».

Autogestioan sakonduz, abenduaren 29ko eta urtarrilaren 3ko hitzaldiak gazte asanbladako bi kidek eskainiko dituzte, ondo ezagutzen dituzten gaiak buruz. Eta Eleak mugimenduaren dokumentala ere ikusi ahal izango da: «Herri harresi fenomenotik abiatuta, ikusten da nola hartzen ari den desobediencia bidea». Gabonetako «eredu bakarra,

intsumisio jarrerarekin» lotzeko baliagarria izango dela uste dute.

Urtezahar gauean, ohitura bilakatu den karaokea izango dute bertaraten direnek. Ondoren, gazte asanbladako gazteen musika emanalditxo bat ere izango da.

Ekimen guztiak «irekiak» dira, eta are gehiago gaztetxea «gazte mugimenduaren eta herri mugimenduaren tresna» bat izan behar dela uste dute, eta gonbita luzatu diete espazioa erabiltzeko.

Gabon autogestionatuak

ABENDUAK 27, IGANDEA

18:00. Bertso tailerra.

ABENDUAK 28, ASTELEHENA

19:00. Jauzia proiektuaren aurkezpena eta *Bisaia*: *jauziaren aurpegiak* dokumentala.

ABENDUAK 29, ASTEARTEA

19:00. *Baserría XXI. mendean*, hitzaldia, Julen Galarragaren eskutik.

ABENDUAK 30, ASTEAZKENA

19:00. *Desobediencia: elkartasunetik konpromisora* dokumentala.

ABENDUAK 31, OSTEGUNA

00:00. Karaokea eta talde sorpresa.

URTARRILAK 3, IGANDEA

18:00. *Zer gertatzen ari da Venezuelan?* solasaldia, Manex Gurrutxaga brigadistarekin.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak
urteurrenak

atarian jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenak egunotan

Urtarrilaren 9an Bilboko eta Baionako manifestazioetarako deia luzatu du Sarek

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Sarek hainbat ekimen antolatu ditu *Mugi daitezten harriak* lelopean eta urtarrilaren 9an Bilbon eta Baionan antolatu diren mobilizazioei begira.

Ibarrak *Nik ere jarriko dut* ekimena abiatu du Sarek. Arlo ezberdinetan diharduten 50 ibartarrez osatutako kartela prestatu dute eta herrian zehar zabaldu. Preso eta iheslarien etxeratzea eskatzen duen banderola balkoietan jartzeko deialdia ere luzatu dute.

Gaur mobilizazioak egingo dira gure eskualdeko herrietan preso eta iheslarien eskubideen alde. Tolosan, 18:30ean Trianguloan bilduko dira eta Villabonan, berriz, Iru Aldeta paretik abiatuko da elkarretaratzea, 19:30ean, *Hator, hator* etxera lelopean.

Leaburuko plazan ere dispersioarekin amaitzeko traba den harria mugituko da, gaur, 17:30ean herriko plazan.

Urtezahar egunean preso eta iheslarien ekimen gehiago burutuko dira gure eskualdean. Besteak beste, 19:00etan Ibararako sarreratik autokarabana abiatuko da. Aiztondoko herriek elkarrekin Zizurkil eta Villabona artean manifestazioa egingo dute eta Altzon, 20:00etan plazan elkarretaratzea egingo dute.



Mugi daitezten harriak kanpainarako erabili duten argazkia Tolosan. ATARIA

Erabakitzekeo eskubidearen alde kriseiluak piztera doaz



Tolosan eta Aiztondon Oria ibaira bideratuko dira piztutako kriseiluak, erabakitzekeo eskubidearen aldeko mezuekin. ATARIA

Abenduaren 26an eta abenduaren 31n egingo dira ekitaldiak eskualdeko herrietan

JON MIRANDA

Eskura gogoeta prozesua amaituta, aurrera begira landuko dituen ekintza plana adostu zuen azaroan Gure Esku Dago ekimenak. Erabakitzekeo eskubidearen inguruko adostasun eremua lortzeko, herri dinamikak bere burua «artekari» gisa aurkeztu du eta bitartekari lana egiteko erabiliko duen lanabesa adostutako bide orria izango da.

Marratzutako bide orri horren «lehen geltokia» tokian tokiko erabakitzekeo adierazpenak sustatzea izango da. Erabakitzekeo adierazpen horiek 2016ko ekainaren 12an aurkeztuko dituzte. Gainera, nahiko adostasun lortzen den eremuetan — Gipuzkoako Goierriin, besteak beste —, herri galdeketak egingo dira.

Lehenagotik, herriz herri «ame-

tsen kriseiluz jantziko ditugu», aipatu du Tolosaldeko Gure Esku Dago-k. Datorren urteko erronkak eta ametsak formulatzeko aukera egongo da, «ametsen kriseiluetan». Herri-tarrek taldean, edo bakarka kriseilua partekatzekeo aukera izango dute, bertan, 2016rako desioak idatziz. Ondoren, zerura edo ibaira bideratuko dira, mezua lau haizetara zabalduz.

Tolosan eta Aiztondon, esate baterako, Orian barreiatuko dira kriseiluak, erabakitzekeo eskubidearen alde ibai argituz. Eskualdeko beste zenbait tokitan, herriko plazan egingo dira larunbatean eta dagoeneko ekimenak eginak dituzte Amezketan eta Orixan.

Kriseiluak 2,5 euroan izango dira salgai, adibidez, Tolosako hainbat saltokietan: Orbela, Denak, Ikatza 66 eta Eguzkiloren. Villabonan Oria merkatari elkarteak gabonetako kanpaina aurkeztekeo ekitaldian iragarri zuen bezala, elkarteko kide diren saltokietan salgai izango dira kriseiluak urtezahar eguna bitartean.

Ametsen kriseiluak

HILAK 26, LARUNBATA

Alegia. 19:00etan bilduko dira herritarrek Alegiako bulebarrean.

Lizartza. Herriko plazan, 18:00etatik aurrera, ametsen kriseiluetan hurrengo urterako desioak idatzi ahal izango dira.

Ikaztegieta. 19:00etan bilduko dira Ikaztegieta plaza.

HILAK 31, OSTEGUNA

Anoeta. Urte zahar egunean, 18:00etan bilduko dira herriko plazan.

Altzo. 19:30ean hasiko da ekitaldia Altzoko plazan.

Bidania-Goiatz. Bidaniako plazan elkartuko dira herritarrek, 18:00etan.

Tolosa. Dama Berdean bilduko dira 17:30ean, San Silvestre krosa amaitu ondoren. Ibaia doan aldan bilduko dira herritarrek.

Aiztondo. 18:00etan Oria ibaiaren bi aldeetara bilduko dira Aiztondoko

Harreraren zozketan zerbaki sariduna

ANOETA. Preso eta iheslari ohiei laguntzeko Harrera elkarteko Anoeta taldeak zozketa bat egin du eta 70.204 zerbakia atera da garaile. Mariskada baterako gonbidapena jasoko du txartel sariduna aurkeztu duenak. Azaroa erdialdera eskaini zuen Harrera elkarteak hitzaldia Anoetan. Orduan, hizlari gisa Juan Karlos Ioldi eta Jon Ugarte kideak aritu ziren, preso eta iheslari ohiei bababesa emateko duela hiru urte pasatxo sortu zen elkartearen.

Itxita dago Alkizako Ostatu jatetxea

ALKIZA. Udalak bando baten bidez jakinarazi duenez, aurreko igandetik herriko Ostatu jatetxea itxita dago. Aurreko arduradunek amaitu dute kontratua eta luzatzeko asmorik ez dutenez, tarte batean ostatu itxita egongo da. Ahalik eta azkarren esleipen prozesu berriaren baldintza pleguak aterako dira eta Ostatu jatetxearen ardura hartuko duten pertsonak hautatuko dira. Alkizako udaletxean lehiaketa prozesuaren berri emango diete interesatuei.

Bigarren hiruhilekoko jarduerak, prest

IRURA. Bigarren hiruhilekoa urtarrilaren 7an hasiko da eta oraindik plaza libre da daude, pilates, yoga, zumba, irristaketa eta capoeira ikastaruetan. Izen ematean plazak gaintuz gero, zozketa publikoa egingo da urtarrilaren 4ean goizeko 11:00etan kultura bulegoan. Pilates eta irristaketa tasak aldatu dituzte eta izen ematerako orduan, hobariak jasotzeko egiaztagirak berriro aurkeztu beharko dira bulegoan. Hilaren 30a arte egin daiteke matrikula.

HITZA

2016an tresna berri bat gehiago, **APP**osturik bai?

12:34

ni

12:35

Abandonatutako fabrika bat okupatu du Gazte Asanbladak

Izaskungo aldaparen hasieran dago eraikina, garai batean Pinturas y Lacas del Norte S.A. zena

MIKEL IRAOLA TOLOSA

Tolosako Gazte Asanbladak fabrika hutsa okupatu zuen atzo goizean, gaztetxe bat martxan jartzeko. Eraikina Izaskungo aldaparen hasieran dago, garai batean Pinturas y Lacas del Norte S.A. zena. Uztailaren 24an, gaztetxea sortzeko aurtengo lehen saiakera egin zuen asanbladak. Larramendi auzoko fabrika bat okupatu zuten, baina egunean bertan hustu zuen eraikina Ertzaintzak.

Duela urtebete jarri zuten Tolosako Gazte Asanblada martxan, Gazte Eguna antolatuz. Asanblada osatzen joateko denbora bat hartu ostean, gaztetxe baten beharra ikusi zuten eta horregatik erabaki zuten uztaileko okupazioa egitea. «Tolosako gazteon errealitatea aldatzen jarraitzeko indarrez jarraitu genuen gaztetxea ez lortu arren eta horren isla izan zen Gazteburua», azaldu dute asanbladatik. «Egun arrakastatsu hori igarota berriro ere gure artean biltzen hasi ginen gazteok jasaten



Fabrika hutsa okupatu berritan, pankartak jarri zituzten eraikinean. ATARIA

ditugun arazoei konponbidea eman nahian».

Tolosako Gazte Asanbladak gaineratu duenez, «nazkatuta gaude gazteok herri honetan pairatzen ditugun arazoetatik: Etxebizitza eskuratzeko ezintasuna, lan baldintza prekarioak, aisi eredu... Arazo hauen muina guri dena eginda ematen ditudela da, helduek sortzen dutela gure bizi eredu eta gu ez gaude horrekin ados». Horren aurrean, ez dutela «helduek esaten dutena» egin nahi diote: «Gure kabuz bilduz eta erabakiz lortuko baitugu jasaten dugun errealitatea aldatzea». Horrega-

tik gaztetxea sortzeko bigarren saiakera martxan jarri dutela adierazi dute: «Gure ustez gaztetxea oso tresna baliotsua da aldaketa aurrera emateko».

Atzo goizean sartu ziren eraikin hutsera, eta garbitze lanak hasi zituzten auzolanean. 20 gazte inguru aritu ziren lan horretan, eta dagoneko martxan jarri zuten urtarrilaren 11 arte iraungo duen egitarau oparoa (egitaraua ataria.info-n). Hitzaldiak, tailerrak eta askariak egingo dituzte, eta bertan lo egiteko eta ikasteko aukera dagoela azaldu dute.

Eguberrietarako hondakin bilketa sistema indartuko dute Tolosan

ERREDAKZIOA TOLOSA

Tolosako Udalak hondakin bilketa sistema indartuko du Eguberri-egira. Horrela, zenbatutako edukiontziak irekiko dira, eta zaborra frakzio bakoitzeko edozein edukiontzietan utzi ahal izango da, aurretiaz era egokian berezita. Edukiontzien biltze maiztasuna handituko du udalak, baita edukiontzien tamaina eta kopurua ere. Errefortzuko 1.000 litroko edukiontziak ezarriko dira zenbait lekutan, bai organikoarentzat eta baita errefusarentzat ere.

Udalak «herritar guztien kolaborazioa» eskatu du: «Hondakinak gaika batuz, erantzukizunez ari gara jokatzeko. Gastua ahal den neurrian murrizte aldera, herritar guztien kolaborazioa eskatzen dugu, baita Eguberrietan ere. Gabonak garbiak eta ingurugiroarekin errespetagarriak izan daitezkeen, zaborra era egokian berezita eta dagokion edukiontzian botatzea eskatzen dugu».

Sortzaile berezien biltetari dago-kionez, abenduak 23 eta 30ekoa bakarrik aldatuko dira, errefusa jasoko baita egun horietan. Beste guztiak berdin jarraituko du. Zerbitzu gehiagoren beharrea balego inor, gertuen dituen edukiontziak erabiltzeko deia egin du udalak.

Egitaraua

ABENDUAK 24, GAUR

09:00. Gosaria.
10:00. Auzolana.
19:30. Kalejira gaztetxetik.

ABENDUAK 25, BIHAR

20:00. Zahagiardoa.
22:00. DJ Elordi eta Rock Radical Vasco pintxada.

ABENDUAK 26, ETZI

10:00. Auzolana.
17:00. Antzerkia (bikarrizketa).
18:00. Malabarismo tailerra.
21:00. Afaria.

ABENDUAK 27, IGANDEA

19:00. Gure kabuz ala hil dokumentala.
21:00. Bertso afaria.

ABENDUAK 28, ASTELEHENA

16:00. Asanblada.
18:00. Harrera elkartearen hitzaldia.
19:30. Afari-merienda.

Irudia Elduain



Maialen Mariezkurrenari dantzari onenaren saria Azpeitian

Azpeitiko Gazteen XV. Dantza Suelto Txapelketan Alurr Dantza Taldean aritzen den Maialen Mariezkurrenari elduindarrak dantzari onenaren saria jaso du. Alurr Dantza Taldeko bi bikotek parte hartu dute txapelketan. ATARIA

Zatoz **ataria**ren egoitzara zure mahai egutegiaren bila!

San Esteban 20 • Tolosa
943 65 56 95

tolosaldeko ataria
www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm

Topatu behar duzuna!

tzq
tolosaldeko zerbitzu gida

Eskualdeko zerbitzuak
www.ataria.info

RAFA GORROTXATEGIEN ARTISAU

turroi eta erroskoak

Rafa Gorrotxategi

DENDA HAUE TAN BAKARRIK :
TOLOSA: Ogi Berri / San Frantzisko Pasealekua, 29
DONOSTIA: Lukas Benta Berri Julio Caro Baroja Plaza, 1

Tolosako Merkatu Txikia bere 20. urteurrenera iritsi da

Laskorain Ikastolak antolatuta, etzitik aurrera zabalik izango da kultur etxean

IMANOL GARCIA LANDA TOLOSA

Aurten 20 urte beteko ditu Laskorain Ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikiak. «Oso pozik gaude horrelako proiektu batekin 20 urtetan jarraitu dugulako», esan du Kepa Goikoetxea Laskorain Ikastolako zuzendariak. Ohi moduan, Tolosako kultur etxean egongo da zabalik, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitartean. Erosteaz gain, bertara eraman daitezke dagoeneko erabili nahi ez diren produktuak. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita egunero, urtarrilaren 1a ezik.

Goikoetxeak ekimena nola sortu zen azaldu du: «Laskorain Ikastolak egiten duen lanaketa baloreetan, hau da, solidaritatea, laguntza, integrazioa, ... praktikara eramatea izan da helburua. Duela 20 urte ekintza hori Merkatu Txikian bihurtu zen». Orduan martxan jarri zutenen ekintzailetasuna nabarmendu du: «Modu txiki eta xume batean jarri zen martxan, ikusita aurrera eraman genezakeela eta nahi genuela batez ere».



Anate Iturralde, Gregorio Eizagirre, Olatz Peon, Kepa Goikoetxea, Maitane Iruin, Xanet Eiguren eta Xabier Aiertza, aurtengo Merkatu Txikiaren aurkezpenean. i.g.l.

Bestalde, bigarren eskuko azokaren filosofiaren zabalteza ere nabarmendu du Goikoetxeak: «Laskorain ikastolak asmoa izan zuen hasieratik azokaren bitartez bigarren eskuko azoka hori sortzea, hau da, produktuak berrerabiltzea, produktuak modu merkeago batean lortzea, trukea bera ere egitea».

Urte hauetan guztietan jasotako laguntza eskertu dute proiektua aurrera eramateko. Batetik, Tolosako Udalarari, besteak beste, kultur etxea uzteagatik. Bestetik, Tolosako denari: batzaz beste 130 denda inguru

ematen dizkiete produktuak saldu ahal izateko azokan.

20 urte horietan kalkulatu dute 250.000 euro inguru banatu dituztela beraiekin parte hartu duten hainbat erakundeei: Emaus Fundazioa, Tolosaldea Sahararekin eta Ibarra Misio Taldea. «Hezkuntzarekin eta osasunarekin zerikusia duten proiektuak bultzatu dituzte. Eta ikastetxe bat izanik, babesten hasiteko errazena horrelako proiektuak babestea izan da». Bestetik, eskerriak eman ditu Goikoetxeak urte hauetan guztietan Merkatu Txikian

parte hartu duten ikasle eta gurasoei, eta urtero 200 inguru aritzen direla nabarmendu du.

Bere aldetik, Olatz Peon alkateak azaldu duenez, «solidaritetea bezalako proiektuak lantzeko urte sasoi guztiak dira onak, baina Merkatu Txikiak badu tradizioa Gabonetan antolatzekoa». Merkatu Txikiaren erudia azpimarratu du Peonek: «Parte hartzen dute ikasleek, irakasleek, merkatariek eta herritarrek erostera joaterakoan. Herria batu egiten dute helburu on batekin». Eskerrak eman dizkie Peonek Ikastola-

ri eta ikasle guztiei, inplikatzeko diren guraso guztiei, merkatariei eta bi elkartei. Bide batez, herritarrak animatu ditu Merkatu Txikira joatera.

Merkatu Txikia definitzeko hitz batzuk aukeratu dituzte prentsaurrekoan izan diren Maitane Iruin eta Xanet Eiguren ikasleek: «Solidaritetea, elkarlana, borondatea, laguntza eta enpatia». Merkatu Txikia oso ekintza garrantzitsua dela esan dute: «Gure Ikastolaren hezkuntza proiektu osoaren barruan kokatzen da, eta beste ekintza askorekin batera, jasotzen dugun hezkuntza zabal eta sakonaren barruan kokatzen da». Ekimenarekin lantzen dituzten baloreen «garrantzia» nabarmendu dute Iruinek eta Eigurenek: «Enpatia da horietako bat. Guretzat balio handirik ez duten objektuek, beharrezko dauden pertsonentzat zein garrantzia duen ikustea».

Ibarra Misio Taldeko Xabier Aiertzak azaldu duenez, Merkatu Txikiaren laguntzarekin azken lau urtetan Indian bi proiektu bideratu dituzte, Carmelitas de la Caridad mojekin batera: neskontzako erresidentzia bat, eskolara joan ahal izateko, eta anbulatorioa.

Tolosaldea Sahararekin elkarteko Gregorio Eizagirre ere azaldu du zertara bideratu duten jasotako laguntza: eskola bat eta artategia. «Lehenbiziko aldiz da lurralde liberatuetan bi zerbitzu horiek dituztenak, eta guretzako ohore handia da», esan du. Bestetik, udan Saharako haurrak Tolosaldera ekarri eta aterpetxe batean izateko ere bideratu dute.

Bi mila kilo inguru Abegi eta Caritasi

Hirukideko ikastetxeko eta Kirikiño aisialdi taldeko kideak, elikagaiak biltzen

MIKEL IRAOLA TOLOSA

Hirukide Ikastetxeko eta Kirikiño aisialdi taldeko kideek 2.000 kilo elikagai inguru bildu dituzte Tolosako Abegi eta Caritasentzat. Aurreko larunbatean aritu ziren elikagaiak biltzen Tolosako bost supermerkatutan eta asteartean egin zuten Hirukide ikastetxean bilketa. Egun horretan, hain justu, eraman zituzten bildutako produktuak Abegira. Bertako bildegia bete zuten, eta jasotakoa gehiago zenez, Caritasera eraman zuten.

Urtero elkarlanean egin ohi duten Eguberri Kanpaina solidarioaren barruan kokatzen da janari bilketa hori. Makarroiak, kontserbak, lekale poteak, turroiak, polboroiak, txoko-



Hirukideko ikasleek larunbatean egin zuten bilketa Tolosako hainbat supermerkatuetan. M. IRAOLA

lateak... denetarik bildu dute. «Aipagarria da Caritasen beste leku batzuetatik janaria jasotzen badu ere, Abegiren kasuan urte osoan irauten diola kanpaina honen bidez lortzen dugun janariak», azaldu du Malen

Oiartzabal ikasleak. Jokoak eta jolasak ere bildu dituzte. Jendeak begirune osoz hartu ditu ikasleak, larunbatean supermerkatuetan egindako bilketan: «Batzuk zertan ari ginen galdetu digute, eta segituan eman

digute zerbait. Beste askok bazekiten. Karroa bete digunik ere izan da». Jendeak oso ondo erantzun duela nabarmendu dute kanpainaren bultzatzaileek eta gustura azaldu dira egindako bilketarekin.

Autobus zerbitzuan aldaketak Gabonetan

ALEGIA. Autobus zerbitzuan aldaketak egingo dira, datozen egunetako ospakizunak direla eta. Horrela, herri guztiko geraleku bakarria Fabrensa industriaguneko Alegi Pentsuak lantegiaren parean izango da datozen egunetan: abenduaren 24ean, Tolosatik 18:10ean eta Abaltzisketatik 18:35ean abiatzen diren autobusak; abenduaren 31n, Tolosatik 16:20an eta Abaltzisketatik 16:45ean abiatzen direnak; eta urtarrilaren 5ean, Tolosatik 18:10ean eta 19:10ean, eta Abaltzisketatik 18:35ean eta 19:35ean abiatzen diren autobusak.

Erakusketa antolatu dute Amarotz auzoan

TOLOSA. Amarotz Auzo Elkartek erakusketa antolatu du auzoan. Hain justu, erakusketaren izena Auzotarren oroitzapenak da. Atzo arratsaldean zabaldu zuten eta urtarrilaren 20a arte egongo da zabalik erakusketa.

Antton Pebeti eta nazio mailakoari Migel Soroa gehituko zaie, etzi



Aurkezpen ekitaldian pilotari ugari elkartu zen Alegian. A. I.

Afizionatuen mailako hiru esku pilota txapelketa jokatu dira asteburuan

ERREDAKZIOA

Amasa-Villabonan, Antton Pebeten Oroimenezko Txapelketa finalerdietan sartuko da. Hilaren 26an, etzi, 10:30ean jokatu dute lehena, jubenilena, Beharzana pilotalekuan. Anso-Etxeberriak Oiarbide-Mariekurrenaren aurka jokatu dute. Partida guztiz irekia aurreikusten da. Ansok pilota bizi mugitzen du,

eta tantoa erraz amaitu. Oiarbide ere joku puntu oso onean aurkitzen da. Atzelariak ezberdinak dira, Etxeberriak segurtasun handiagoa du eta Mariezkurrenaren jo handiagoa. Partida bikaina espero da.

Jarraian nagusien mailako finalerdia izango da, Ugalde-Telletea eta Eneko Labaka-Aizpitareren aurka. Partida guztiz irekia honako hau ere. Ugaldek edozer egin dezake. Ezker bizi horrekin edoizen puska dezake. Telleteak, afizionatu mailako ezker onena duenak, aurkari sekantea izango du. Aizpitarrek dena

eramaten du. Jo gutxiago duen arren oso segurua da. Albizturgo Labakak aurrekoan bezala jokatu izango ditu. Elegantea da, ikusteko zoragarria. Azkenik kadeteen finalerdia jokatu da, Iriarte-Ibarloza eta Alberdi-Apeztearen artean.

Igandean, beste hiru finalerdi jokatu dira. Kadeteetan, Murua-Egiguren eta Zabala-Zubeldia; jubeniletan, Etxeberria-Aranguren eta Zubizarreta-Eskiroz, eta nagusietan, Urretabizkaia-Murgiondo, Azpiri-Kastillo.

Zazpi Iturri, final laurdenetan

Amezketan, Euskal Herriko Kluben Arteko Nazio Mailako Pilota Txapelketaren final laurdenak jokatu dira larunbatean eta igandean. Bi jaialdiak 17:00etan hasiko dira.

Larunbatean Zaramaga-Markinak neurtuko dituzte indarrak, eta igandean, Zazpi Iturrik eta Pagazpek. Etxeko taldean ondorengo pilotariak ariko dira finalerdietako txartelaren bila. Lau t'erdiko lehian, Zubiria; buruz-burukoan Aranguren, eta binakakoan Peru Labaka eta Mendia. Aurkariak Urbietta, Santxo

eta Quina-Gorrotzategi izango dituzte, hurrenez hurren. Ondorioz, amezketarrak finalerdietara pasatzea zaila izango dela aurreikusi daiteke.

IV. Ogi Berri-Migel Soroa

Tolosako Beotibar pilotalekuan larunbatean hasiko da IV. Ogi Berri-Migel Soroa Txapelketa. Jubeniletako, promesetako eta eliteko partidak jokatu dira ligaxkako lehen jardunaldi honetan, 16:30etik aurrera. Finalerdiak otsailaren 20an jokatu dira, eta finalak, 27an.



JOXE ANGEL
SARASOLA

Herri kiroletatik

Ikusmin handia

Asteburu berezia izan da. Eta gainera, dena Tolosaldearen bueltan. Denok bildu gara herri kirolaren inguruan. Euskal Herriko etorritakoak, eta apustuaren kasuan, Zaragoza, Asturias eta Segoviatik etorri direnak ere aipatu behar.

Larunbatean Diva-k oso jaialdi polita jarri zuen Apattan. 1989az geroztik ez genuen horrelakorik ikusi; harri-jasotzaileak doble pisuarekin. Josetxo Urrutia nagusitu zen 74 kilorekin 150eko harria jaso. Urtzi Telleriak 79 kilorekin 10 kilo gehiagoko harria jaso zuen. Hiru minutuko bi tandetan 18 jasoaldi egin zituzten biek. Leitzarra nagusi, bera hasi baitzen lanean.

Urrezko Harrijasotzaileen finalerdia ere jokatu zen Leaburun. Orain arteko kanporaketa guztietan 62 jasoalditik ez zen inor pasa. Larunbatean, hiru harrijasotzaileek lortu zuten langa hori pasatzea. Telleria IV.a eta 'Urria'-k 63 eta Izeta II.ak 65.

Aizkora desafioa ere jokatu zen Diva-n. Egurrak ez ziren oso onak, eta gazteenari tokatu zitzaion kaxkarrena. Hala eta guztiz ere, Unai Zabala txaramarra hasi eta bukatu erritmo berdinean ondo aritu zen. Julian Larrea nagusitu zen bere 86 urterekin. Iaz Bilbon kanako enborra bota zuen honek, eta sasoiko dagoela ikusten da; 86 urterekin! Hori sasoi!

Larretxea vs. 'Arria V'

Tolosako zezen plazan 1.600 ikusle pasatxok ordaindu zuten 40 euroko sarrera, igandean. Zalantza izaten da horrelakoetan, 35 eurotan jarri, hala 40an. Zortzi egun lehenago erabaki zuten zenbatekoa. Zortzi

hilabeteko prestaketa ondoren, jakin nahiko nuke zenbateko gastua izan zuen apustu horrek.

Lagun batekin lehengoan hizketan, 40 euro asko zela esaten zidan. Baina kontuan izan behar da, hori guretzat final moduko bat dela. Urtean ez dira asko izaten, bi edo hiru. Eta kirolariak buruz buru aritzen dira elkarren aurka. Pentsa pilotako final batek zenbateko sarrera izaten duen. Horri aizkora munduan dituen gastuak gehitu behar zaizkio. Eta horiek, benetan, ikaratzeko modukoak dira. Datuak: ideia bat egiteko, kamioika egur bakoitzak gutxi gora behera 3.000 euroko kostua dauka. Apustu hau egiteko hiru bat kamioika gastatu dituzte. Gero erremientak daude. Aizkora bakoitzak 600 euro inguru balio dute, eta puskatu egiten dira. Horri gehitu masajistik, prestatzaile fisikoak...

Igandean enborrak erdibana eraman zituzten. Donatorenak oso gozoak ziren, ederrak. Arria V.ak gogorxeagoak ekarri zituen: beste egur baten lana zuten. Larretxeak bost gozoak ebaki zituenean, besteak lau gogor bota zituen.

Apustua oso gogorra izan zen; teknikoak; buruarekin lan asko egin beharrekoa... eta biak pare parean ibili ziren denbora guztian. Alde egin nahi izaten da horrelakoetan, baina ez zen horrelakorik gertatu. Lan erdian 'Arria V'.a aurretik zen, eta Larretxea beteta. Hamaikagarren enborrean, ordea, errezil-darrari adar begia atera zitzaion, eta denbora pasa zuen enbor gozoan. Larretxeak ez zekien zergatik galdu zuen 'Arria V'.ak denbora hori. Aurkaria bera bezala bete egin zela pentsatu zuen. Eta horrek lagunduta,



Joseba Otaegi zizurkildarrak Urrezko Aizkolarien finala jokatu du abenduaren 31n, Asteasun. A. I.

bere buruari buelta ematen hasi zen. Detalleak. Benetan afizioa egiteko moduko apustua izan zen. Eta Larretxea, 55 urterekin, sasoi bete-betean dagoen aizkolaritari irabazten ikusi genuen.

Desafio berriren baten abarrotsik ez zen entzun apustuaren ondoren. Nola erreperatzen den ikusi nahiko du irabazleak. Baina Atutxaren eta Olasagastiren arteko irabazleari desafioaren bat eroriko zaio.

Aizkora ofizio lana da; artisau lana. Horiek golpe gutxi failatzen dituzte, eta ematen dutena leku hobean izaten da. Ezpala txikiagotik egiten dute lana. Eta horrela mila gauza. Ez da urteen poderioa bakarrik, ez, berezkoa ere badute hauek. Erremientak prestatzerakoan, egurrak ezagutzerakoan,... batuketa bat da. Azkenean gauza asko pilatzen dira, eta plaza joaten direnean, horixe erakusten dute.

Asteasu, pasatakoa

Santa Sousa, jatorriz brasildarra. Ousman Drame, jatorriz senegaldarra. Eta biak herri kirolatan, txinga eroaten. Asteasun ikusi genituen igandean. Santa gainera, euskara ja-

torrean. Larretxearen herri kirol eskolan ibiltzen da lesakarra, eta trontzan edo aizkora bikain moldatzen da Euskal Herriko txapel-duna.

Harri Handien Euskal Herriko Txapelketa, Jokin Eizmendi nagusitu zen. Hasiera hasieratik ikusi zen horrela izango zela, harri handi horiekin sarri gertatzen den moduan. Bigarren Hernialdeko Iban Ugartemendia. Duela gutxi hasi zen harrijasotzen, eta nabaritzen zaio. Baina gizon indartsua da, eta 200 kiloko harriekin horrela ibiltzeak izugarriko merituak ditu. Harria atzerae-gi botatzen du, agian, baina oso lan bikaina egiten ari da.

Asteasu, datorrena

Abenduak 31, osteguna, 17:00ak. Urrezko aizkolarien eta harrijasotzaileen txapelketen finalak jokatu dira Asteasun. Aizkora, Atutxa txapel-duna, Azurmendi eta Otaegi zizurkildarra.

Harriarekin, Izeta II.a, faborito bezala, bere semea, Izeta IV.a, eta harri handien txapel-duna, Jokin Eizmendi.

Ikusmina: handia.

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Eneritz Maiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. Faxa: 943 65 00 18
ataria@ataria.info • www.ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.info
Bezero arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko...):
902 82 02 01

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.-ko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

Ataria-k
Bai
Euskarari



Gipuzkoako Foru Aldundia

ataria 107.6 fm
irratia 105.0 fm

Euskal musika

Egun osoan zehar euskal musika entzungai.

Aiztondorako frekuentzia berria:
105.0 fm

farmaziak

GAUR

Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:
Morant Barber, Rosalia.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 673849.

agenda

DEIALDIAK

ASTEASU. 4. Gabonetako Atzapar Txapelketa, urtarrilaren 3a bitartean. Haur eta helduentzat esku pilota eta pala txapelketak. Finala, urtarrilaren 3an jokatuko da.

TOLOSA. Abenduaren 26an. Eta Abar & Lagunak Rai musika kontzertua eta Dj Pintxitos beste munduko musikak. 22:00etan, Eguzki tabernan.



IKER IBARLUZEA

GAUR

Hego haizea ibiliko zai-gu, berriz ere zakar, temperatura antzeko baliotan mugituko da (17-19 gradu). Urte sasoi honetarako temperatura altuak izango dira. Zeruan, aitzakia gutxi; goizean, behe lainoa izango dugu, baina segituan jasoko du.

BIHAR

Eguraldiak ez du aitzakiarik izango, hego haizea zakar ibiliko da, momenturen batean bolada gogorren bat izan daiteke. Temperatura antzeko balioetan mantenduko da (17-19 gradu). Zeruari dagokionez, aitzakia gutxi, goizean goi hodeiren bat ager daiteke.

Marijuliren postalak

Marijuli Azkuek zuen ohitura bizirik mantendu nahi dute

esalditxo batekin: «Lau hitz nahikoa izaten ziren hura irakurtzean guztioi irribarre txiki bat eragiteko», dio Jabier Santamaria lagunak.

Marijuli bidaiaria zen, eta urte horretan bisitatutako lekuren bateko bere argazki bat postal bihurtzen zuen: AEB, Maroko, Kuba... Euskal Herriko txokoren bat edo beste ere bai, bere urtebetetze egunean. «Berreziak izaten ziren postalak, bera bezala. 50 postaletik gora bidaltzen zituen, munduko txoko askotara. Ni Ortuellakoa naiz, baina Castellora, Kanarietara edo Txilera ere bidaltzen zituen», dio Santamariak.

Igandean urtebete bete zen Marijuli zendu zela. «Hutsune handi bat utzi zuen». Haren postalak etxera helitzen jarrai dezaten, *Marijuliren Postala* ekimena jarri dute martxan gertukoek. Ideia horren bultzatzaileetako bat da Santamaria bera.

Bere postal zaharrak berreskuratu eta lagunen postal gehiago pilotzea da helburua, eta horretarako webgune bat (*marijulirenpostala.eus*) osatu dute, bilduma gisa. Edonork bidali ditzake postalak bertara.

Harrera ona

Dagoeneko 20 postaletik gora bildu dituzte, eta gehiago izatea espero dute: «Lagun askoko pertsona zen Marijuli, eta jendeak ekimenaren berri izan bezain pronto animatu da». Beste batzuentzat, berriz, webgunea bisitatzea eta postal bilduma ikustea soilik, «poz iturri» dela azpimarratu du.

Proiektuak amaierarik izango ez duela ere esan du Santamariak: «Dударik ez dugu, behin hasita, ez da geldituko webgunean esaten dugun bezala, Marijuliren postala etxera helitzen jarraituko da».

MIKEL IRAOLA ASTEASU

Marijuli Azkueren ohiturari jarraiki, *Marijuliren Postala* ekimena jarri dute martxan gertukoek, berak bidaltzen zituen postalak berreskuratu asmoz.

«Alaia, irribarretsua, baikorra, edo zertarako beti prest izaten zena. Abegikorra eta jendea batzeko gaitasun handikoa. Pentsaera zabalekoa, oso giza pertsona. Detalle askokoa». Horrela gogoratzen du Jabier Santamaria lagunak Marijuli Azkue.

Detalle horiekin, irribarre sortzaile ere bazen Marijuli. Urte amaiera gerturatu ahala gertuko senide zein lagunei postal bana bidaltzen zien,

28 KANALA

12:30. On ein!
13:30. Gaurkoan Tolosalde.
21:30. Gaurkoan Tolosalde.
23:30. Gaurkoan Tolosalde.
00:00. 28 klip.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Patinaia pista Villabonan



ERREBOTE PLAZA
Abenduaren 15etik urtarrilaren 10era
11:00-14:00 / 17:00-21:00

GABONETAKO ZOZKETA: URTARRILAK 12
1.175 €. 4 diru sortatan banatua (6 hilabeteko epea)
www.oriamerkatariak.com

Ikusi zure herriko argazkiak!



Goizean goizetik kantu kantari ibiliko zarete!
Olentzero eta Mari Domingi ere iritsiko dira!
Honen berri egun osoan zehar izango duzue www.ataria.info-n

Zure Eguberrietako erosketek saria dute IBARRAN

Erosketa txeki **4X100€**

Zozketa urtarrilak 11, 13:30etan.
Aparkezko ordu beteko OTA txartelak doan lortzeko aukera dendetan.

EKINTZAK

Abenduak 28: Nerabentzat sukaldaritza tailerra, 16:30 - 19:30, udalbatetik abiatuta. Izon-ematea: Kiribil leopandegian

Abenduak 30: Salkigintza tailerra, 10:30 - 13:30, Gazteleku (Azkue, 9)

Abenduak 29 eta 30: 10:30 - 13:30 Puzgarriak udalategiko plazan



ibarrak merkatariaren elkartea

Urtebetetzeak ezkontzak jaioberriak

...
Jarri zorian agurra eta eskaini kantu bat irratian!

943 65 56 95
ataria@ataria.info